



Zinemaldi
Alternatiboa
SAN SEBASTIAN INSURRECTIONARY FANDANGO FESTIVAL

2022
Iraila
15/25

SSIFF 9+5

ZINEMALDI
ALTERNATIBOAREKIN
ELKARLANEAN:



ZINEMALDI ALTERNATIBOAK HIRIKO PLAZETAN ZABALTZEN JARRAITUKO DU 14. EDIZIOAN ETA EZTABAIDA SUSTATUKO DU UDALAK ABIATU DUEN HIRI ANTOLAMENDUAZ

Donostiako Zinemaldi Alternatiboaren 14. edizioa aurkeztera gatoz. Ia gauero proiektzioak antolatzeko asmoa dugu irailean, Zinemaldi ofiziala baino egun bat lehenago hasi eta egun bat beranduago amaituz. Klean, hiriko gaztetxeetan eta aurten lehen aldiz, EHUko Arkitektura Fakultatean.

Azken hau berrikuntza nabarmena da gurean eta azalpena merezi du: Donostiako Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) berrikusteko prozesua hasi du. Plan Orokorra oinarrizko tresna da hiriaren erabateko antolamendua aurrera eramateko. Eragin nabarmena izango du naturguneetan eta hiriguneak dituen gune libre, eraikin eta bideetan, izan publiko zein pribatu, eta beraz, eragin zuzena du Donostiako ekonomian, gizartean eta ingurumenean.

Plan Orokorrak hiri-eredu jakinen ispilu dira, eta dagoeneko abian den prozesua hiri bezala zer behar dugun pentsatzeko aukera paregabea da. Gutxi batzuen negozioa beharrean, herritarron bizitza babestuko duen hiria elkarrekin hausnartzeko aukera paregabea, azken batean.

Zinemaldi Alternatiboak gogoeta hori sustatzeko bitartekoa izan nahi du, eta 2022ko edizioko egitaraua asmo horretara bideratuko da parte batean. Arkitektura eskolan, zein beste plaza batzuetan (Añorgan eta Trinitate enparantzan, besteak beste), hiri-ereduari eta hiri-gatazkei buruzko ikus-entzunezkoak proiektatuko ditugu. Proiektzioaren ondoren, ikusitakoarekin nahiz HAPOrekin lotura duten gaietan dabilzan lagunekin solasaldiak izango dira.

Proiektzio guztiak prestatu ditugu mimo handiz, baina egitarau osotik pare bat nabarmendu behar baditugu, Polonian atxilo duten Pablo Gonzalez kazetariaren askatasuna eskatzeko baliatuko dugun bere *Vivir la guerra* aipatuko genuke (bere emazte Oihana Goiriena gurekin izango da), edo Intxaurrondon, klean, Mikel Zabalzari buruzko *Non dago Mikel?*-en proiektzioak nabarmenduko genituzke.

Berrikuntzekin gatoz, maiatzetik crowdfunding bat egin genuelako pantaila eta proiektore berri bat erosteko. Emaiza edizio honetan ikusiko da, eta ziur gaude aurten oraindik eta gehiago gozatuko dugula zinemaz klean, non eta herritarrok kaletik bota nahi gaituztela diruen Donostia honetan. Zinema kalera ateratzea estrategikoki erabaki genuenetik, geroz eta auzo gehiagotara heltzen jarraitzen dugu, eta honako lekuetan izango dira emanaldiak: EHUko Arkitektura eskolan bi, Añorgako frontoian, Alde Zaharreko Trinian, Antiguako Txantxarreka Gaztetxean, Grosen Sagueseko frontoian, Intxaurrondoko Letaman gaztetxean eta Egiako Gladys Enean prestatu ditugu proiektzioak.

Iaz guztira 300 lagun batu ginen. Aurten ere den-denok gonbidatuta zaudete.

AUTOGESTIOAN 14 URTEKO IBILBIDEA

Zinemaldi Alternatiboa hiriko mugimendu sozialek antolatzen dugu autogestioan oinarrituta 2006 urtetik, eta besteak beste ondorengo lekuetan egin izan ditugu proiektioak: Baibaiuan, Kortxoenean, Firesen, Itxas Gain zentro sozial okupatua... Aipamen berezia beti merezi du Eneko Goiaren agintaldi hasierna eraitsi zuten Kortxoenea gaztetxeak, bizirik izan zen bost urteetan han egin baitzen eta bultzada garrantzitsua izan zen proiektuarentzat. Horri egiten dio keinu urtero jartzen dugun (+5) markak edizioaren urtean. Aurten hamalagarren edizioa 9 + 5 izango da.

Ekimen xumea izan arren gurea, gurekin izan dira pertsonaia ilustreak, hala nola, Juanba Berasategi, Klara Badiola, Martxelo Rubio, Ramon Agirre, Fermin Muguruza, Anari...

Eta guztira asko dira gure txikitasunean gure egitaraura hurbildu den jendea eta pozik eta gogotsu gaude proiektuarekin jarraitzeko, ikusten dugu ekarpena egiten duela hirian eta hala jarraituko dugu.



Irailak 15, osteguna / 18:30 / EHUko Arkitektura fakultatean

Periferia

Urtea: 2020

Iraupena: 84'


Egileak: Xavi Esteban eta Odei Etxearte

Proiektzio ostean solasaldia: Egileak eta Bizilagunekin plataforma

Trailerra: <https://www.dailymotion.com/video/x7wnzv2>

Sinopsia:

Periferia Bartzelonatik gertu dagoen Santa Coloma de Gramenet udalerriaren iraganeko oihartzunetara egindako bidaia da. Bertako bizilagunek espekulazio frankistak ezarri zien aldiria hiri duin bihurtu zuten. Iragan hura bere kale, plaza eta aurpegi oraindian islatzen da. Xavier Valls arkitektoak egin zuen Herri Plana, herritarren parte-hartzearen esperientzia aitzindaria izan zen. 1987an, ETak hil



zuen Hipercorreko atentatuan. Bere semeak sotora itzuli dira, bere artxibo pertsonala lurperatuta geratu zen lekura, epopeia hura eta, berarekin batera, borrokan ari zen hiri oso batekoa berreskuratzeko. Oroimenerako jaitsiera horretatik abiatuta, Periferiak, egitura kiribil baten bidez, hiriko egungo hainbat espazio eta pertsonaiatan nabigatzen du, hiri baten hirigintzak eta gure bizimoduaren arkitekturak zer sostengatzen duten hausnartzera gonbidatuz: zer esan nahi du hobera eraldatzen uzten ez duen mundu batean inplikatzek? Beste behin ere, periferiak benetako bizimoduak entseatzeko espazioak dira.

Valladolideko Seminci 2020 festibalean estreinatu zuten.

Ondorengo film laburra ere proiektatuko da:

17 Santi 17

Urtea: 2020

Iraupena: 6' 10"

Egileak: Álvaro E. Olaiz eta Segis Monsó Agorreta

Sinopsia: Aldaketen zurrumbilo zorabiagarrian murgilduta dagoen mundu honetan, iraultza teknologiko berria bizitzen ari gara. Iraultza horrek inoiz ez bezala konektatzen gaitu, nahiz eta, bestalde, paradoxikoki, inkomunikazio egoera bultzatzen duen. 'Identitate' definizioaren bidez, tokiko merkataritzan giza tratuak duen garrantzia gogorarazten digu pieza honek. Zoritxarrez, desagertzeko


joera du, hirien nortasuna gentrifikazio eta turisfikazio prozesuen baitan desagertzen doan bezala. Donostian kokatutako film labur hgonetan nortasun-galtze hori pairatzen ari diren eragileetako batzuk, denda txikiak, aurkeztuko dizkigute.

Saiora gonbidatuak:

Xavi Valls eta Odei Etxearte (Periferia)

Segis Monsó Agorreta (17 Santi 17)

Irailak 16, ostirala / 20:00 / Añorgako Harrobiaren plazan (Anorga Kultur Taldearekin elkarlanean)



En Construcción

Urtea: 2001

Egilea: José Luis Guerin

Gurekin izango da: Mikel Azcona, Donostiako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko hirigintza irakaslea eta Añorgako auzokidea.

Trailerra:

<https://www.dailymotion.com/video/x7vry95>

Sinopsia:

Bartzelonako auzo enblematiko batean, hirigintza-plan batek mehatxatuta, etxebizitza-bloke bat eraikitzen hasi dira. "Eraikuntza baten intimitatea ezagutu nahi genuen, beraz, hor sartu ginen, espazio hori oraindik gazteek futbolean jokatzen zuten orube bat zenean. Eredu horretan bilatzen dugu elkarrekin bizitzeko, ezagutzeko eta filmatzeko modua -horrela, agindu honetan-, obraren beraren anekdotarioari eta inguruan

sortzen zuenari heltzeko aukera emango ziguna; eraiketen burrunbak hautsitako egunerokotasun horretan, auzotarren artean, auzoan. Prozesu horretan, laster ohartu ginen hiri-paisaiaren mutazioak giza paisaian ere mutazioa zekarrela, eta mugimendu horretan munduaren zenbait oihartzun antzeman zitezkeela. Oinarri horien gainean pelikula bat eraiki genuen".

Sariak:

2001: Donostiako Zinemaldia: Epaimahaiaren Sari Berezia, Fipresci saria

2001: Dokumental onenari Goya saria

2001: Filme onenari Forqué saria

Irailak 17, larunbata / 20:00 / Alde Zaharrear, Alde Zaharreko Trinitate enparantzan



En la calle

Urtea: 2022

Iraupena: 19'

Egileak: Sos Arrazakeria eta Harrera

Saioan gonbidatuak: Kalean bizi diren gazte migratuak eta Parte Zaharreko Afari Solidarioak

Trailerra:

<https://www.youtube.com/watch?v=MWaSdBqCqzE>

Sinopsia:

Gazte migratzaileak dira Donostian kokatutako lan honen protagonista. Lehen pertsonan beren ibilbide, amets eta ilusioen berri ematen dute, baita gure gizartera heltzeko eta hemen aurkitu dituzten traben eta elkartasunaren berri ere.

Irailak 18, igandea / 20:00 / Antiguako Txantxarreka gaztetxean

Free Pablo Gonzalez - Vivir la Guerra



Urtea: 2021

Iraupena: 23'

Egileak: Oier Zeberio

Ondoren solasaldia Oihana Goirienarekin, Pabloren emaztea

Trailerra:

<https://www.youtube.com/watch?v=zW4kVTYPolw>

Sinopsia:

Kazetaritza egiteagatik Polonian atxilotuta daukaten Pablo Gonzalez ezagutzeko aukera ematen du lan honek. Ukrainako gudara abiatu aurretik argitatu zuten dokumental honetan ofizioa nola ulertzen eta praktikatzen duen azaltzarekin batera, munduarekiko duen ikuspegia azaltzen du.

Irailak 20, asteartea / 18:30 / EHUko Arkitektura fakultatean

DE INTERÉS GENERAL

un barrio por un parque

Guión y dirección de Miguel Ángel Sánchez



historia koherentea sortzen dute.

Eta ahalegin horien guztien batura dela eta, erabateko arrakasta lortu dute Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren epai irmo batean, golf-zelaia eraistera eta, beraz, espazio horretan parke publiko bikaina garatzera behartzen duena.

De interés general. Un barrio por un parque.

Egileak: Miguel Ángel Sanchez

Saioan gonbidatuak: Carmen Ochoa (Parque Sí Chamberí)

Félix Arias (Club de Debates Urbanos)

Trailerra:

<https://www.youtube.com/watch?v=Gdrw2izziNI>

Sinopsia:

"De interés general" film dokumentala da, ordubete ingurukoa, eta "Parque Sí Chamberí" elkartearen historia kontatzen du, Madrilgo Erkidegoak Isabel II.aren (Filipinetako Uharteak) III. Kanalaren Gordailuan eraiki zuen golf-zelaiaren ordeztu bere barrutirako parke handi bat lortzeagatik. 14 urtez beren helburua lortzeko lan egin dute.

Dokumentala elkarteko pertsoneri, bizilagunei, kazetariei, abokatuei, ekologistei, soziologoei, arkitektoei... egindako elkarrizketetan oinarritzen da. Pertsona horien hitzak, prozesu luze honekin oso konprometituta daudenak, manifestazioen irudiekin, mahai-inguruekin, kazetaritzako albisteekin, telebistakoekin... lotuz doaz, eta ahaleginaren eta elkartasunaren

Irailak 21, asteazkena / 20:00 / Sagueseko frontoian (Groseko Asanblada Feministarekin elkarlanean)



Belarri Bero, bai esan? (websaila)

Egileak: Uxue Bereziartua Lonbide, Uxue Amonarriz Zubiondo eta Aitor Altuna Etxabe


Saioan gonbidatuak: Uxue Amonarriz Zubiondo, Aitor Altuna Etxabe, Nerea Arriola eta Dorleta Urretabizkaia.

Trailerra: https://youtu.be/LGi4G6HsZ_U

Sinopsia: Belarri bero telefono linea erotikoak diru arazoak ditu. Axunek, negozioaren nagusiak, isilpean darama afera Ines, Garazi eta Eider langileei ezer kontatu gabe. Halere, lehenago edo beranduago, mahaiaren bueltan bildu eta aurre egin beharko diote errealitateari.

Zein bide aukeratuko ote dute? Sei kapituluz osatzen da Belarri bero, bai esan? websaila. Lau protagonistek egunerokoan dituzten bizipen ezberdinek egituratzen dute trama nagusia. Hauek aitzakia izango dira sexualitateak erdigunean jarri eta umoretik lantzeko.

Irailak 24, larunbata / 20:00 / Intxaurrendon, Letaman gaztetxeko terrazan



Non Dago Mikel?

Egileak: Amaia Merino, Miguel Angel Llamas "Pitu", Izaskun Arandia, Nagore Ezeiza, Gorka Pastor eta Xanti Salvador.

Saioan gonbidatuak: Amaia Merino eta Pitu zuzendariak.


Trailerra:

<https://www.youtube.com/watch?v=DYt5r6tsug8>

Sinopsia:

1985eko azaroa. Guardia Zibilak atxilotu ostean, ez dakite Mikel non dagoen. Eta bizirik aurkitzeko itxaropena desagertzen ari den bitartean, Euskal Herriko kaleak garrasika hasi dira: "Non dago Mikel?".

Irailak 25, igandea / 20:00 / Gladys Enea parkean



Kasilda, beste pausuen oihartzuna (ESTREINALDIA)

Egileak: Juan Felipe, Ruben Marcilla eta Unai Otegi

Saioan gonbidatuak: Juan Felipe zuzendaria.

Trailerra: <https://vimeo.com/685599731>

Sinopsia: Casilda Hernaez Vargas donostiar ijito eta anarkistak, 30eko hamarkadan bere hirian oso ezaguna zenak, markatzen digun bideari jarraitzen dio.

Beste urrats horien bidez, Donostia ezezagun bat aurkitu genuen, hiri errebelde eta borrokalaria, estatu-kolpe bat ehizarako eskopetekin eta ilusio handiarekin geldiarazteko gai zena. Casildarekin Urumearen hiriko langile eta feministen borroka bizi ditugu, ANVren sorrera (ezkerreko nazionalismoa, langile eta akonfesionala), CNT sindikatuaren gorakada. Azken finean, inor axolagabe uzten ez duen Donostiaren argazki argitaratugabea.

Casildak eta Felix Likiniano bere lagunak gerra galdu zuten, baina ez zituzten inoiz garaitu. Erbestean,

Miarritzen, frankismoaren aurka borrokatzeko muga zeharkatzen zuten gazte antifaxistei babesa eman zieten.

Dokumentalean ikus dezakegu nola Donostian, bere hirian, urrats horien oihartzuna entzuten den oraindik, beti geratzen baita norbait, La Casik bezala, amore emateari uko egiten diona.